

EDUK ' AKTU

« La Gazette de LAB EDUC »



Otsailak 2018

EDITO

Nola hasi 2018-ko urtea, gure lehen edizioko lehen hitz hauek urte berri eta gorri on bat agiantzatu gabe ! Aurten gauzatu gogo dituzun erabaki haundien zerrenda egiteko tenorea etorri zauzu, hola da... Moda da... LAB Hezkuntzaren kazetak zerrenda egiten lagunduko zaitu !

Aurten manifestaldi, mugimendu, borroka guzietan parte hartuko dut ! Informaturik egon behar dut ! Kazeta irakurri... Aurten ene lanari buruzko gogoeak, zailtasunak, alde onak ezagutu nahi ditut ! Kazeta irakurri... Aurten gai interesgarri batzu sakonduko ditut : prekaritatea hezkuntzan, euskararen lekua irakaskuntzan, iparralde zein hegoaldeko hezkuntza sistemak erakutuko ditut ! Kazeta irakurri...LAB Hezkuntza taldearen eztabaidetan parte hartu nahi dut ! Kazeta irakurri... Zure onerako, hezkun-

tza munduan lan egin edo ez, kazeta irakurri !! LAB Hezkuntza osatzen dugun kideek, informazio orrixa hauek harilkatzen ditugu hezkuntza arloko gogoe-ten ahal bezainbat jende-ekin partekatzeke xedez. Kazeta honek, pentsamolde bakarrari aurre eginez egunerokoan izan ditzakegun galderer ihardesten lagunduko gaituen tresna izan nahi du.

« LAB'urki » sailean Euskal Herri, eskualde edota Frantziako hedabide ezberdinetan oinarrituz, iritzi eta problematika zombait agerian emanen ditugu.

« Sakonki » sailean, LAB Hezkuntzak barnatzen eta sakontzen duen gai baten azterketa edirenen duzu. Horrez gain, LAB Hezkuntzaren lan ardatzak, etorkizuneko xantierrak bai eta agenda ere aurkeztuko dizkizugu.

Aitzakiarik ez duzu ! Aurten zure erabaki guziak gauzatuko dituzu... Irakurketa on, gogotaldi on !

La gazette de LAB Hezkuntza te permettra de réaliser toutes tes bonnes résolutions : rester informé-e, se mobiliser, chercher des solutions et des actions pour l'éducation, sortir des sentiers battus !

Le collectif LAB Hezkuntza se creuse la tête et propose à travers cette gazette un outil de réflexion pour dépasser les limites d'un système éducatif dont les écueils sont nombreux tout en luttant contre la pensée unique... La place de l'euskara dans l'enseignement, la précarité dans le monde de l'éducation, les différences des systèmes éducatifs iparralde / hegoalde sont autant de sujets de fond qui seront abordés dans ces quelques pages.

Plusieurs rubriques pour remuer tes méninges : LABurki (réflexions fondées sur une synthèse de la presse locale, régionale et française), Sakonki (approfondissement d'une problématique chère à LAB Hezkuntza), l'agenda, nos travaux, nos chantiers...

Les fêtes sont derrière nous mais tu n'as pas fini de te régaler... Bonne lecture et bonne santé !

LAB' urki « LAB défriche l'actu »

• Lecture

7-12 – Le Monde - Piètres résultats de Pirls et "nouveau" cap...

La France est confrontée, en quête après enquête, à une érosion de ses résultats scolaires. Le Programme international de recherche en lecture scolaire (Pirls) portant sur les élèves de CM1 de 50 pays octroie à la France la dernière place des 34 pays dépassant les 500 points (la moyenne) C'est le seul pays, avec les Pays-Bas, à réussir de moins en moins bien (-5 points entre 2001 et 2011 ; -9 points de 2011 à 2016). Aussitôt Blanquer a sonné la mobilisation autour de la maîtrise du français et des "fondamentaux"... Sous couvert d'"évaluation", de "recherche" et de "comparaison internationale", il relance ... la "dictée et la récitation quotidiennes", la "lecture à voix haute", "un livre par mois"... Outre les évaluations (à l'entrée du CP et de la 6ème), il annonce l'introduction de tests, conçus par le "Conseil scientifique de l'EN" qu'il vient de créer, en milieu d'année de CP et CE1 ;

il préconise le choix de manuels scolaires plus efficaces ... En fait, les difficultés des élèves ne relèvent pas du décodage des textes mais de leur capacité à en saisir le sens...

Les lacunes de la formation des enseignant.e.s, laissés bien souvent seuls face à la difficulté scolaire de leurs élèves, seraient parmi les explications de ces mauvais résultats.

LABek bat egiten du formakuntzaren kritika honekin, batez ere lehen formakuntzarena. Blanquer-en ezinegonak ez du eragin handirik ukanen. Ora in bere komizioa sortu du eta aholku batzorde bat da. Noiz ulertuko dute eskola ez dela herrien arteko zeingehiago bat ? Haurrek hobeki ikasiko dute ulertzen ozenki irakurriz, irakurketa inposatuak izanki ? Nehork ez du gustukoa lan inposatua. Zendako haurrek ez dute ulertu ? Irakurketa gaitasunagatik edo interes eskasagatik ? « L'exception française » ?

• Poste enseignement bilingue

7-12 – Mediabask – Postes à l'agrégation et au Capes d'occi-

tan (Felco = Fédération des enseignants de langue et culture d'oc)

Un seul poste (!) a été créé pour l'agrégation d'occitan, pour 50 candidat.e.s ; il ne s'agit pas de création de ressources nouvelles mais juste de la possibilité d'une promotion d'enseignant.e.s déjà affectés sur des postes, promotion les mettant à égalité avec leurs collègues des autres disciplines.

Le nombre de postes au Capes n'est que de 4, soit une baisse de 33% par rapport à 2017. L'espace occitan compte 32 départements dont une bonne part sans aucun professeur du second degré titulaire, ou avec un seul. On mesure là l'ampleur du mépris de l'EN.

La Felco (Fédération des Enseignants de Langue et Culture d'Oc) appelle à soutenir sa demande d'augmentation de postes à la session 2018 pour les concours de l'agrégation et du capes.

14-12 – Sud-Ouest - Enseignement bilingue

31 député.e.s, dont l'élue paloise Josy Poueyto et les élus d'IEH Bru et F. Lasserre, ont signé un courrier adressé au ministre Blanquer pour déplorer la forte baisse du nombre de postes d'enseignant.e.s bilingues qui seront ouverts au concours en 2018. 20 postes sont proposés (27 en 2017) sur les 46 demandés. L'euskara (Seaska) se voit attribuer 7 postes sur 15 ; l'occitan

(calandreta), 5 sur 10 ; le breton, 6 sur 15 ; l'alsacien 1 sur 4 ; le catalan, 1 sur 2

LABek Felcoren eskaera sustengatzen du bai eta diputatuen erantzuna begionez ikusten. Pariseko Hezkunde Nazionalan, alde batetik, ez dituzte oraindik eleaniztasunaren ongiak ulertu, eta bestaldetik ez dute haien zor historikoa onartu, berdin ez da ohartu ere. Zein ondorio konkretu izanen dira gure hizkuntzen garapenarentzat ?

• Tableaux noirs

11-12 – <https://tableauxnoirsblog.wordpress.com/>

« Depuis le 28 juin, date à laquelle quelques tableaux noirs du collège Albert Camus de Gaillac ont été sauvegardés pour réutilisation, nous n'avons plus aucune nouvelle de ces tableaux noirs.

... ils avaient été remis au collège sous bonne escorte de la gendarmerie, constituant des pièces à conviction dans les poursuites judiciaires et administratives à l'encontre des « décrocheurs de tableaux » (6 professeurs). ... le feuilleton ubuesque se poursuit.

À la question d'une élue [lors d'un CA du collège, LAB] : « Pouvez vous nous dire ce que sont devenus les tableaux noirs, inventoriés par les gendarmes lors des événements du 28 juin 2017 au collège Albert Camus ? », la Direction du collège ... refuse de nous dire s'ils ont été jetés.

... le représentant du Conseil Départemental était présent au CA. Questionné, il refuse de se prononcer. À notre demande que les tableaux noirs (existants) puissent être refixés dans certaines salles ... la réponse est NON. ... « Il y a des demandes pédagogiques légitimes, d'autres illégitimes. On ne va pas remettre un piano à un prof d'EPS ou un vélo à un prof de musique ! Mais un tableau noir mobile sera apporté sur demande, deux tableaux noirs mobiles sur roulettes sont disponibles. » (sic !) ...

...les nouvelles salles vont être opérationnelles ... sans tableaux noirs. Des professeurs continuent de demander leur retour. Ce qui importe aussi pour eux, elles c'est que la numérisation de l'école fasse l'objet d'un débat public.

LABek ere holako eztabaida publiko bat nahi du. Teknologia berrien kontra izan gabe LABek alde txarrak ere ikusten ditu (denbora galtze, material arazoak, beti gehiagoarena, euskararen erabilera, ekologikoa eta abar). Eta haurren irakurtzeko arazoak gaizki eraman den iraultza numeriko batengatik balitz ?

• Du lycée à l'université

11-1 – Le Canard Enchaîné –
« Sélection, piège à Macron »

E. Philippe ne craint pas le mot 'sélection' a-t-il dit, mais préfère ne pas l'employer ; il s'agit de ne pas braquer les étudiant-e-s. ... les universités ne sélectionnent pas, elles 'recruteront' ; les exigences pour intégrer chaque filière... ne seront pas des 'prérequis' mais des 'attendus'...

L'Unef réclame 2 milliards, Macron promet 100 millions/an.

LABek istorio honetan denentzako unibertsitatearen bukaera posible bat ikusten du. Jendeak 'askatasuna' badu bakarrik errentagarria dena hautatzeko ? 'Berdintasuna' dea hori ? Norat joan da Frantziak zor duen diru guziaz ? Hezkundeak, formakuntzak eta jendeak bide desberdinak entseatzek dena jan dute ?

• Poderearen gaitzitzea

11-27 – Sud Education – Plainte du ministère contre Sud Educ 93 pour diffamation

Le ministre, Jean-Michel Blanquer, a annoncé qu'il portait plainte contre le syndicat Sud Education 93 pour avoir utilisé l'expression 'racisme d'Etat'... Le ministre [a fait] applaudir par l'Assemblée, presque toutes tendances confondues, la répression d'un syndicat.

LABek azkarki salatzen du : ministroaren esku sartzea jarduera sindikaletan ; ministroak 'estatu arrazakeria' justizian atakatzea zentsura hutsa nahi izatea dela. Poderea zentzu gaizki batera buruhanditzen ari ote da.

• Sindikatua greban

Berria 2018ko urtarrilak 12

« Hezkuntzako sindikatuek aste osoko grebak jarri dituzte mahai gainean »

Eusko Jaurlaritzak euren eskaerak onartu ezean, ELAK, LABek eta Steilasek mobilizazioak indartuko dituzte Araba, Bizkai eta Gipuzkoako hezkuntza publikoan. Familiak «bahitzea» leporatu die UriartekELA, LAB eta Steilas sindikatuek hordagoa bota diote Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari. Datorren asterako deitu asmo dituen negoziazio mahaietan euren aldarrikapenei erantzun zehatzak eman ezean, martxotik aurrera mobilizazioak indartuko dituzte. Greba egingo dute martxoaren 14an eta 15ean eta ekainaren 12an Arabako, Bizkai-ko eta Gipuzkoako unibertsitatez kanpoko hezkuntza publikoko beharginek. Apirile-

tik aurrera sektoreka joko lukete grebara: irakasleek, apirilaren 23ko astean; heziketa bereziko beharginek, maiatzaren 7koan; sukaldariek eta garbitzaileek, 21ekoan; eta Haurreskolak partzuergoan, ekaineko lehen astean. Horrez gainera, martxoaren 2an hasita, ostiralero, elkarretaratzeak egingo dituzte ikastetxeetan, eta hezkuntza komunitateari egin diote parte hartzeko deia. »

Txalo beroak hegoaldeko borroka laguneri !!

Hezkuntza arloko partaide guziak batzen dituen presio handiko estrategia eraginkorra, epe luzean planifikatua eta aitzinetik hitzemandana plantan emanik. Hori, hori !!

Iparraldean eta orohar estatu frantsean ezagutzen dugunaren alderantzizkoa !! Noizbehinka intersindikalak bikuraz bilkura antolatzen dituen grebak, egiazko indar metaketarik lortu gabe... Gure ahulezia...

Hegoaldeko lagunien ildo beretik segi dezagun beraz, langileen eskubideak borrokaz ber-irabazteko !!

LAB Hezkuntzak eskaera kantitatiboak ez ezik, lan postu kopuru, lansari eta ordezkatzailen izendatzeeri buruz, galdere kalitatiboak ere baditu. Prekaritatearen eta eskolaren merkatarizazioaren kontra, norbanakoa eta jendartearen zerbitzuko den hezkuntza indartsu bat behar dugu.

SAKONKI « Arrêt sur »

Murgiltze sistema : Elebitasuna lortzeko bidea ?

Le nombre d'élèves qui apprennent en basque ne cesse d'augmenter. Cette apparente massification ne génère pas pour autant de futurs locuteurs actifs et ne garantit donc pas l'avenir de l'euskara. Le Ministère de l'Education Nationale doit mettre en œuvre les moyens nécessaires pour qu'un service public d'enseignement en langue basque de qualité puisse être proposé, faciliter et encourager l'implication du personnel enseignant, reconnaître la langue basque au même titre que le français et répondre ainsi à une demande grandissante.

Ixa Jamein, enseignante en maternelle en système immersif depuis 4ans témoigne : « Le système immersif accélère la compréhension de la langue, favorise la prise de parole et facilite la suite de la scolarité des élèves [...]»

1983an zen lehen aldikotz klase elebidun bat ideki Saran. 35 urte berantago zertan da euskararen erakaskuntza ?

- Erakaskuntza elebidunean den ikasle kopurua etengabe handitu da geroztik. Zenbakiak adierazleak dira. Euskara Erakunde Publikoa (EEP)-ren arabera, lehen mailako ikasleen %44ak euskaraz ikasten du 2016ko sartzean, sail publiko, pribatu edo Seaskan. Bigarren mailan berriz 2004tik 2016ra kolegioetan euskara ikasten duen ikasleen proportzioa %9,6tik %18,4ra pasa da, lizeoetan aldiz %6,6tik %9,9ra.

- Hala ere, bilana gazi gozoa dela erran dezakegu gaur egun : masifikazio horrek ez ditu ikasle guziak nahi bezala euskalduntzen. Egoera horrek arrazoin ezberdinak ditu : Iparraldea diglosia egoeran dago oraindik : esfera publikoan frantsesa da nagusi eta elebiduneko ikasleen gehiengoarentzat euskara eskolako hizkuntza baizik ez da gelditzen, familian erdaraz hitz egiten delarik. Lehen mailatik bigarren mailara existitzen den abandonoa zailtasun hauen adierazle da.

- Erakaspen elebiduna biziki aldakorra da ikastetxeen arabera, kuadro juridiko argia eskas baita. Seaskan erakaspen guzia euskaraz egiten bada, errealitatea bestelakoa da publiko edo pribatuarentzat. Lehen mailan oren parekidetasuna denetan presente da eta imertsioaren esperimentazioa 12 eskola publiko eta 18 eskola pribatuetan plantan jarria izan da. Murgiltzearen orokortzea behar beharrezkoa iduritzen zaigu euskararen garatzeko. Bigarren mailan berriz, kolegio publikoetan eta pribatuetan batazbestean 7 oren baizik ez dira euskaraz egiten, parekidetasunak 14 oren behar litzukelarik. Orenen erdia eskas!

- Zerbitzu publikoak egiazko euskaratze eredu bat proposatu behar du ! Euskararen presentzia handituz, euskara maila hobetzen da, dudarik gabe ! Euskarazko transmisioa ahalik eta kalitate hoberenean egin dadin, eskola publiko frantsesak bere ikuspegia erradikalki aldatu behar du eta medioak eman hizkuntza guttitiuak behin betikotz frantsesaren berbinean onartzuz!

LEKUKOTASUNA : Ixa Jamein Larresoroko eskola publikoan erakasle

Euskalduntze prozesuan murgiltze sistemak bere frogak egiten ditu : Ixa Jamein, ama eskolan erakasten duenak bere lekukotasuna ematen digu .

« Larresoron murgiltze sistema 2014an hasi da. Kasik urte bat pasatu dugu txostena muntatzeko. Bistan dena, inkesta bat egin dugu eta eskolako buraso guziek parte hartu dute. Gehienak alde ziren. Bestalde, hastapenetik erakasleak ados ziren. Geroztik, postu erdi bat ideki dute euskaraz eta orain postu bat terdi da euskaraz eta 3 terdi frantsesez. Aurten, 87 ikasle dira eskolan eta 30 ikasle elebidun sailan, beraz heren bat.

Imertsioak aldaketak ekartzen ditu: ulermen mailan lehenik. Guttiago errepikatu behar dira konsignak eta fiteago ulertuak dira. Istorio bat irakurtzen dudalarik, zinez, haurrak testuan sartzen dira eta adi egoten dira, plazer bat da. Bigarrenik, gehiago ausartzen dira euskaraz hitz egiten.

Geroari begira, momentukotz, ez dakigu zenbat ikasleek segituko duten kolegio eta lizeoan. Bainan, aurkezten dugularik murgiltze sistema burasoei, azaltzen diegu inportantea dela pentsatzea denbora luze batentzat, eta segur izan behar direla haien hautuan.

Elebidun saileko haurrek kriston indarra eman behar dute euskara ulertzeko. Murgiltze sistemari esker, hiztegi gehiago lantzen eta ikasten dute. Beraz, uste dut haurrendako, errexago dela murgiltze sistema batean izatea.

Murgiltze sistemak sortzen dituen kezak elebidun sail orokorraren berdinak dira, batez ere gurasoengandik. Adibidez, haurren segitzeko ez gai izatea etxean matematikan edo historian. Erantzuten diet berantago (kolegio edo lizeoan) gai batzuentzat ere zaila izaten ahalko zaiela beren haurren laguntzea : matematikan adibidez ez baldin badute maila. Anitzetan ikasleen zailtasunak ez dira euskarari lotuak.

Oro har, uste dut gurasoek konzientzia handiago batekin haurrak emaiten dituztela imertsio sisteman eta serio sago ikusten dutela »

AGENDA

- Otsailaren 28 an : LAB Hezkuntza ren hilabeteroko bilkura 14:30 Hazparnen « Xuriatea »
- 28 février: Réunion de LAB EDUC à Hazparne 14:30 (Xuriatea)
- Vous êtes les bienvenus.e.s, Avs, Aesh, Prof, personnel d'établissement, tout membre de l'équipe pédagogique d'un établissement scolaire , Privé, public, Seaska... EZ DUDA ...

LAB HEZKUNTZA taldea
10, Place St Ursule
64100 Baiona
05 59 59 50 20
http://ieh.eus_iparralde
baiona@lab.eus

OBRETAN « Chantier en cours »

• **Prekaritatearen inguruko lana sakontzen** : / Contre la précarité le travail continue

LAB Hezkuntzak IEH hainbat eskoletan (Ikastola, Eskola pribatu eta publiko) banatutako galdetegiaren emaitzak plazaratu zituen joan den uztailean .% 80 ak ikastetxeetan baldintza prekarioak direla aitortu zuten. « Aesh, Atsem, erakasle ordezko en kontratu murriztu, postu fitxa eskasek, kontsiderazio faltak, inplikazioa ttipitzen, talde pedagogiarekin elkarlana kaltetzen eta eskainia den zerbitzuaren kalitatea ahultzten dute !... ».

Horietarik aintzek mobilizatzeko gogoia erakutsi dute. Segitzen dugu beraz, informazio bilkurak antolatzen hasten lan prekarioa dutenak antolatzeko helburuarekin. Prekaritatearen kontra borrokatzeko gogoeta eta lan ardatzak lantzen segitzen dugu...

Les résultats de l'enquête menée dans les écoles du Pays Basque Nord révèlent une forte précarité qui semble affecter les équipes pé-

dagogiques ce qui impacterait sur la qualité du service rendu. LAB EDUC souhaite approfondir cette étude et organiser les personnels qui le souhaitent pour lutter contre des conditions de travail peu acceptables et ainsi favoriser l'éducation de l'enfant dans l'établissement scolaire.

• **Delegatu sindikalak SEASKAN ! :**

Hauteskunde profesionalak antolatu dira Seaskan, LAB ek listak aurkeztu ditu ikastola desberdinetan eta 10 langile delegatu atera dira, 5 delegatu sindikal. Delegatu hauen formazio ta antolaketa segitzen da, ikastoletan ere eremu sozialak garatzen segitzeko gisan.

• **Rencontre avec les délégué.e.s « LAB enseignement » du Pays Basque Sud :**

• Etude sur les conditions de travail ainsi que les différentes formules d'enseignement en Pays Basque Sud (Ikastola privées et publiques , écoles sous contrat avec l'Etat espagnol etc.)